

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/016

Izenburua: NATURA ZAINTEKO INSTITUTUAREN (ICONA) PROBINTZIAKO BURUTZA

Datak: 1905-1997

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 134 instalazio unitate

Sortzailea: NATURA ZAINTEKO INSTITUTUAREN (ICONA) PROBINTZIAKO BURUTZA

Erakundearen historia:

Natura Zaintzeko Institutua (ICONA) urriaren 28ko 17/1971 Lege Dekretuaren bidez sortu zen, Nekazaritza Ministerioari atxikitako erakunde autonomo gisa. Haren esku zeuden Estatuako Baso Ondareak eta Arrantza Kontinentaleko, Ehizako eta Parke Nazionalak Zerbitzuak betetzen zituzten eskumenak, 1972ko martxoaren 25eko Aginduaren bidez zehaztuak. Honela zehazten ziren eskumen horiek:

- Baliabide natural berriztagarrien azterketa eta inbentarioa egitea.
- Estatuaren jabetzako mendietako eta partzuergoetako baso masak sortzea, kontserbatzea, hobetzea eta administratzea.
- Onura Publikoko Mendien Katalogoan jasotakoak administratzea eta kudeatzea, bai eta esku komuneko mendi babesleak eta auzo mendiak babestea ere.
- Nekazaritza eta baso lurrak kontserbatzea eta hobetzea.
- Abeltzaberiak administratzea.
- Baso suteen kontrako defentsa.
- Paisaia babestea.
- Arrain aberastasun kontinentala eta ehiza aberastasuna babestea eta ustiatzea.

Abenduaren 20ko 3640/1974 Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Diputazioaren esku utzi ziren Natura Zaintzeko Institutuaren eginkizunak, ezertan eragotzi gabe Estatuaren goi ikuskaritza, zeina Nekazaritza Ministerioak beteko baitzuen ICONAren bitartez. Dekretu hori otsailaren 27ko 334/1987 Errege Dekretuak indargabetu zuen, zeinak Estatuaren titulartasuneko mendien jabaria Nafarroara eskualdatu baitzuen.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren zerbitzu periferikoen berregituraketaren ondorioz (141/1993 Errege Dekretua, urtarrilaren 29koa) ICONAren lurralde unitateetako burutzak desagertu, eta sortu berri ziren probintzia zuzendaritzetan sartu ziren. Handik gutxira, ekainaren 23ko 1055/1995 Errege Dekretuak ICONA eta IRYDA erakunde autonomoak batu zituen, eta erakunde berriak Parke Nazionalak izena hartu zuen.

Abuztuaren 1eko 1330/1997 Errege Dekretuaren bidez, zeinak zerbitzu periferikoak eta Gobernuaren ordezkartzen egitura integratzen baitzituen, desagertu egin ziren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Zuzendaritza Probintzialak, eta haien zerbitzuak Gobernuaren Probintzia Ordezkaritzan sartu ziren.

Funtsaren antolamendua:

016.01 EGINKIZUNEN ESKUORDETZEA

016.01.01 Eskuordetzea eta eskualdaketa

016.02 ADMINISTRAZIOA

016.02.01 Txostenak

016.02.02 Korrespondentzia

016.02.03 Kide anitzeko organoetan izandako parte-hartzea

016.02.04 Koordinazio akordioak eta erakunde arteko harremanak

016.03 LANGILEAK

016.03.01 Langile-hornitzeak

016.03.02 Espediente pertsonalak

016.03.03 Ordainsariak

016.03.04 Langileen kudeaketa

016.04 KONTABILITATEA

016.04.01 Kontabilitate arloko dokumentuak

016.05 ONDAREA

016.05.01 Ondasunen kudeaketa

016.06 BALIABIDE NATURALEN KUDEAKETA

016.06.01 Baso baliabideak

016.06.02 Ehiza eta arrantza baliabideak

016.06.03 Antolatze proiektuak

016.06.04 Airetiko argazkigintza lanak

016.07 NATURAREN BABESA

016.07.01 Plan hidrologikoak

016.07.02 Suteen aurkako babesa

016.07.03 Birpopulaketak

016.07.04 Laguntzak eta finantzaketa

016.07.05 Ingurumen hezkuntza

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.